

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu bat martxan jarri eta arrakastatsua izateko, taldekideek proiektuak aurrera egin dezan gehitu ditzazketen baliabide guztiak ondo kudeatzea ezinbestekoa da. Horretarako, baliabide garrantzitsuenak aztertu beharko ditugu, baliabide intelektualak, hain zuzen ere. Taldekideon bertuteak batuz, proiektuak eskatzen dituen xehetasun guztiak bete ahal izango ditugu, eta honela gure helburuak betetzea lortuko dugu.

Hasteko, Leireren teknologiaren inguruko ezagutzak ezinbestekoak izango dira, gure publizitatea eta arreta zerbitzua bertan oinarritzen baita. Gainera, webgunearen bitartez besteekin komunikatzeko duen gaitasuna beharrezkoa izango zaigu; izan ere, bezeroei bermatu behar zaien komunikazioa eta konfidantza oso garrantzitsuak izango dira.

Horrez gain, enpresa batek aurrera egin dezan eta posibleak izan ditzan, ezinbestekoa da diruaren kudeaketa eta administrazioa egokia izatea. Kasu honetan Leirek, ekonomia munduan trebetasun handia du eta bere etorkizunean honen inguruko ikasketak egitea gustatuko litzaiokeenez, oso ezagutza zabala duela uste dugu. Alor honetan duen esperientziak proiektuan laguntza handia eskaini dezakeela deritzogu.

Bestalde, gure panpinen diseinua planeatu dugun bezalakoa irten dadin ezinbestekoa da disenatzaile trebe bat eskuragarri izatea. Unairi duela urte batzuk diseinuaren arloarekiko interes izugarria piztu zitzaion, gaur egunera arte iraun duena. Bere proiektuari esker, disenatzaile oso abila izatea lortu du eta bere gaitasun berritzailea beharrezkoa izango zaigu.

Gainera, Unai oso kontzientziatuta dago plastikoaren gehiegizko erabileraren eta haren birziklapen prozesu desegokiaren inguruan. Beraz, bere heldutasuna, konprometua eta inplikazioa erabilgarriak izango dira gure proiektua aurrera eramateko garaian.

Azkenik, beste elkarte zein enpresekin aliantzak egitea ezinbestekoa zaigu, gure proiektua beren laguntzekin aurrera eramateko aukera bakarra baita. Horregatik, Naroak besteekin harremanak egiteko eta adostasunera iristeko duen ahalmena oso garrantzitsua da, akordioak bideratu daitezten. Naroaren hitz jarioak gure helburuak betetzen lagunduko digu. Gainera, marketinaren inguruan ezagutza zabala du eta bere gaitasun honek gure proiektua publikoari zabaltzen lagunduko digula deritzogu. Etorkizunean honen inguruko ikasketak egin nahi dituela jakinda, bere interesa aprobetxatu nahi dugu ahalik eta bezero kopuru gehienara iristea lortuz.